

IV. ERANSKINA

EUROPAR BATASUNEN BETEBEHARRAK EZAGUTZEN DITUELA DIOEN ADIERAZPENA

Izena eta bi deiturak.....

NANa / IFZ.....

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak uztailaren 4an emandako 1365/2016 Ebazpenak araututako laguntzen eskatzailea izanik (ebazpen horren bidez enplegu autonomoa sustatzeko dirulaguntzak arautu ziren), **adierazten dut:**

1. Badudala deialdi hau arautzen duten oinarrien berri.

2. Europar Batasuneko arauditik datozen betebeharrak ezagutzen ditudala:

A) Dirulaguntzaren onuradunek Nafarroako Gobernuaren lankidetzari buruzko publizitatea egin beharko dute urtarillaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuan ezarritako moduan. Betebeharrak horri lehen aipatutako 18 hilabeteko epean eutsi beharko zaio.

Era berean, egiten duten jarduketaren publizitatean Nafarroako Foru Komunitateko EGEF 2014-2020 Programa Eragilearen bidezko kofinantzaketa adierazi beharko dute.

EGIFen ekarpena jendaurrean paratzea, web-orrian ondoko esaldia ikusgai jarritz, diruz lagundutako proiektuak irauten duen bitartean gutxienez:

"Enpresa honek laguntza jaso du, EBko REACT baliabideek %100ean konfinantzatua, Nafarroako EGEF 2014-2020 Programa Operatiboaren bidez, COVID-19aren pandemiaren aurrean Europako Batasunak izandako erantzunaren zati gisa". Esaldi hau ondoko logotipo honekin batera agertuko da:



Fondo Social Europeo: "Europa invierte en tu futuro"
Europako Gizarte Funtzak: "Zure etorkizunean inbertitzen du"

Financiado como parte de la respuesta de la Unión a la
pandemia de COVID-19

Era berean, DIN A3 neurriko kartel bat ikusgai jarri beharko du, proiektuak irauten duen bitartean gutxienez.

B) Horrez gainera, kontabilitate sistema bereizi bat izan beharko dute, edo kontabilitate kode egoki bat, diruz lagundutako proiektuarekin zerikusia duten transakzio guztiei dagokienez. Halaber, iruzurrari aurre egiteko neurri eraginkorrak eta proportzionatuak aplikatu beharko dituzte kudeaketaren eremuan: kalitate kontrola eta gardentasuna kontratazioan, egon daitezkeen interes-gatazken kontrola, egon daitezkeen faltsifikazioen kontrola, etab.".

C) Eragiketen egiaztagiriak 2028ko abenduaren 31 arte gordetzea, 1303/2013 Erregelamenduko (EB) 140. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Finantzaketa onartzearekin batera, onartzen da baliabide elektronikoen eta bestelakoen bidez argitaratuko den onuradunen zerrendan sartzea, eta eragiketen izenak eta onuradunei esleitutako funts publikoen zenbatekoa argitaratzea.

.....(e)n, 20....(e)koaren(e)(a)n .

(Eskatzailearen sinadura)